

***EBAZPENA, 2019ko maiatzaren 15(e)koa, Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziako zuzendariarena, lan-kontratu iraunkorra ez duten irakasleen edo ikertzaileen ikerketa-jarduera ebaluatzeko Protokoloa jendaurrean jartzen duena. Unibasq Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren Aholku Batzordeak onartu zuen protokolo hori, 2019ko maiatzaren 14an.***

## **I.– Lege-esparrua.**

Ekainaren 28ko 13/2012 Legeak, Unibasq Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziari buruzkoak, 2.1 artikuluan ezartzen du agentziaren xedea Euskal Unibertsitate Sistemaren baitan kalitatea ebaluatu, egiaztatu eta ziurtatzea dela, Espainiako, Europako eta nazioarteko esparruak aintzat hartuta.

## **II.– Protokolo honen xedea.**

“Ikertramoak” programak lan-kontratu iraunkorrik ez duten irakasleak, edo unibertsitate pribatuetako edo ikerketa zentroetako irakasleak eta ikertzaileak ditu jomugan, baldin eta jardunean badaude “Ikertramoak” programaren esparruan unibertsitateak edo ikerketa-zentroak Unibasqekin bere langileak ebaluatzeko hitzarmenari jarraikiz egindako deialdiaren eskaerak aurkezteko epea amaitzean.

## **III.– Ebaluazio-organoak.**

1.– Deialdia egiten duen unibertsitateak edo ikerketa-zentroak bidaliko dizkion eskaerak ebaluatuko ditu Agentziak bere Ebaluazio Batzordeen bitartez, eta batzordekideek Unibasqen Etika eta Berme Kodea betez jardungo dute.

2.– Ebaluazio-prozesuan eskuratutako informazio guztia konfidentziala da.

3.– Ebaluazio-batzordeak.

a) Unibasqen ekainaren 28ko 13/2012 Legearen 10. artikuluan ezarritakoa betez, Ebaluazio Batzordeak dira ebaluazio-eginkizunez arduratuko diren organo zientifiko-teknikoak.

b) Batzordeen eraketa- eta funtzionamendu-erregimenari dagokionez, Protokolo honetan ezarri ez den orotan Unibasqen Estatutuetan jasotako erregulazioa aplikatuko da.

c) Agentziako zuzendariak, Ebaluazio Batzorde bakoitzeko kideen artean, presidentea eta idazkaria izendatuko ditu, eta kargu horiei dagozkien funtzioak beteko dituzte kide anitzeko organoetan.

d) Jakintza-eremu eta -arloan arabera antolatuko dira ebaluazio-batzordeak. Hasteko, honako Ebaluazio Batzorde hauek eratuko dira:

- Zientzia Esperimentalak.
- Gizarte Zientziak
- Zuzenbide eta Ekonomia Zientziak.
- Medikuntza eta Osasun Zientziak.
- Irakaskuntza Teknikoak
- Giza Zientziak

e) Ebaluazio Batzordeen kopurua aldatzeko aukera izango da prozesu bakoitzaren zirkunstantzia espezifikoen arabera.

f) Ebaluazio Batzordeek gutxienez bost kide eta gehienez hamar izango dituzte, aurreko deialdietan batzorde bakoitzak ebaluatutako eskaera kopuruaren arabera. Salbuespenez, Ebaluazio Batzordeak Agentziari aholkularitza espezifikoa eskatzeko aukera izango du, hori gomendagarria bada.

g) Hiru urteko indarraldia izango du izendapenak, eta Agentziako zuzendariak izendapenaren ebazpena sinatzen duen egunaz geroztik hasiko da indarrean. Batzordeen osaera Agentziaren webgunean argitaratuko da.

#### **IV.– Prozesuaren deskribapena:**

1. Unibasqekin alde aurretik hitzarmena sinatu duen unibertsitateak edo ikerketa-zentroak egingo du deialdia. Parte hartzeko behar den dokumentazioa, epeak eta modua ezarriko dira deialdian, betiere Unibasqek eta deialdia egiten duen organoak adostutakoa jasota. Behin eskaerak onartzeko aldia amaitu ondoren, deialdia egiten duen organoak onartuen zerrenda bidaliko dio Unibasqi, ebalua ditzan.

#### 2. Ikertramoak eskatu ahal izateko baldintzak:

2.1. Deialdia egiten duen unibertsitateak edo ikerketa-zentroak ezarriko ditu baldintza horiek. Gainera, eskaeraren betekizun formalak egiaztatzeko eta eskaera onartzeko ardura hartuko ditu bere gain. Prozesu horren ostean, Unibasqi bidaliko dizkio onartutako eskaerak, ebalua ditzan.

2.2. Edozein kasutan, eskatzaileek doktore-tituluaren jabe izan beharko dute. Hala ez bada, ebaluazioa aurkakoa izango da.

2.3 Eusko Legebiltzarraren Tasa eta Prezioei buruzko Legearen 95 bis eta 95 quinquis artikuluetan jasotako tasaren ordainketa erantsi behar zaio eskaera bakoitzari, Unibasq Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziak irakasle eta ikertzaileak ebaluatzeko eskaera normalizatuak izapidetzeari aplikatzekoa dena. Hori non eta unibertsitateak edo ikerketa-zentroak beste ordainsari mota bat sinatu ez duen Unibasqekin sinatutako hitzarmenean.

#### 3. Eskaerak nola formalizatu.

3.1 Interesdunak telematikoki egin behar du eskaera, Agentziaren webgunean ([www.unibasq.eus](http://www.unibasq.eus)) horretarako txertatutako aplikazio informatikoa erabilita.

#### 3.2. Eskaeran datu hauek sartu behar dira:

- a.- aplikazio informatikoan adierazitako datu pertsonalak,
- b.- ebaluatu behar den tartea (hautatu diren sei urteak adierazi),
- c.- zein jakintza-arlori esleitu nahi zaion,
- d.- zein batzordek ebaluatzea nahi duen.

e.-eskatzaileak aukeratutako aldiaren ebaluaziorako bere iritziz aipagarrienak diren ikerketaren/zabaltzearen bost ekarpen, aplikazio informatikoan eskatzen diren ekarpen horien datu azpimarragarrienak adieraziz. Salbuespen bezala, ekarpen kopurua gutxiagokoa izan daiteke, beti ere ekarpen horiek aparteko kalitatea badute eta eragin handikoak badira.

f.- Curriculum Vitae osoa, formatu librean, aplikazio informatikoak adierazten duen atalean. Ikerketa, garapen eta berrikuntzari lotutako jarduerak bakarrik adieraztea gomendatzen da. Era berean, argitalpenen «doi» (digital object identifier) aurkeztu beharko da, halakorik baldin badute.

g.- Ebaluatzeko eskatzen den aldiko jatorrizko zerbitzu-orri eguneratua, eskatzaileak aldi horretan izan duen dedikazio-erregimena adieraziz. Ikerketa «zerbitzu-orrian» agertzen ez den zentro batean egin bada, kontratuen, izendapenen, bekadun-egiaztagutunen edo antzeko dokumentuen kopia gaineratu beharko da.

h.- Tasa ordaindu izanaren egiaztagiria, non eta unibertsitateak edo ikerketa-zentroak beste ordainsari mota bat sinatu ez duen Unibasqekin sinatutako hitzarmenean. Tasa nahitaezkoa ez bada, ez ordaintzeak aurkako ebaluazioa ekarriko du berekin.

3.3. Unibasqek, administrazio-prozeduraren edozein unetan, eskaerari gaineratu zaizkion artxibo elektronikoen xede izan diren jatorrizko dokumentuak eskatu ahal izango ditu, baliozkoak direla eta bat datozela egiaztatzeko. Gainera, eskaeran alegatutako merezimendu eta datuen inguruan beharrezkotzat jotzen duzun dokumentazio osagarria eskatzeko aukera izango duzu. Eskatzaileak dokumentazio hori bidaltzen ez badu hamar egun balioduneko epean errekerimendua jasotzen duen egunaren hurrengo egunaz geroztik, ebaluazioa negatiboa izango da.

3.4. Unibasqek beretzat gordetzen du eskaeran gaineratu diren artxibo elektronikoen sortzeko jatorrizko dokumentuak aldatzen dituztenen aurka legalki jarduteko eskubidea. Gainera, eskaeran errealitatearekin bat ez datozen datuak adierazten badira, Unibasqek eskubidea izango du gezurrezko zinpeko deklarazioei buruz indarrean duen protokoloa aplikatzeko.

3.5. Interesdunek Unibasqera jo ahal izango dute deialdi honen ebaluazioari lotuta dagoen edozein kontsulta egiteko.

#### 4. Bost ekarpenen identifikazioa.

«Ekarpentzat» hartuko da, Ikertramos deialdiaren epe barruan indarrean dagoen Ikerkuntza-jardueraren Ebaluazio Batzorde Nazionalaren Batzordeburuaren ebazpenak ezarritako ebaluazio-irizpideetakoren batean sailka daitekeen edozein unitate. Aipatutako irizpide zehatzak, ebaluazio arlo bakoitzarako, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren egoitza elektronikoa aurki daitezke. Aipatutako ebazpenean 1994ko abenduaren 2ko Aginduaren 7. artikuluan eta Unibertsitate eta Ikerketako Estatu Idazkaritzaren 1994ko abenduaren 5eko Ebazpenaren 7. artikuluan ezarritako irizpide orokorrak ikusi daitezke. Ekarpentetan identifikatzeko beharrezkoak diren datuak adieraztea beharrezkoa izango da.

Ikertramo bat eskatuz gero, aurkezten diren ekarpenek ebaluatzeko eskatzen diren urteetan argitaratuta egon behar dute. Urte horietan «onartutako» baina argitaratu gabeko argitalpenak ez dira kontuan izango. Transferentzia tramu bat eskatuz gero, aurkeztutako ekarpenak, ebaluaziorako aldian adierazitako urteetako batean era eraginkorrean egon behar da.

Adierazitako ekarpena patente bat baldin bada, ebaluatzeko eskatzen diren urteetan "emandakoa" izan beharko du. Urte horietan «aurkeztutako» edo «argitaratutako» baina kontsolidatu gabeko argitalpenak ez dira kontuan izango. Gainera, patentearen emakida biltzen duen pdf bat gaineratu beharko da.

Ekarpen bakoitzaren laburpen txiki bat egingo da, aplikazio informatikoak ezartzen duen gehieneko hitz kopuruarekin, bertan ikerketaren helburuak eta emaitzarik onenak bilduz.

Era berean, eskatzaileak hautatu duen ekarpen bakoitzaren «kalitate-adierazleak» gaineratu beharko ditu, honako hauek izan daitezkeenak:

-Ekarpen bakoitza argitaratu den hedabidearen adierazgarritasun zientifikoa. Argitalpenen kalitateari buruzko nazioarteko irizpideak biltzen dituzten diziplinetan, irizpide horiek nahitaezko erreferentzia izango dira.

-Beste autore batzuek, argitaratu dituzten lanetan, eskatzailearen obrari buruz egiten dituzten aipamenak, ekarpenaren garrantzia edota bere esparruan izan duen inpaktua adierazten dutenak.

-Interesdunak bere obrak jakintzaren aurrerapenari egin dion kontribuzioari buruz emandako iritzi laburra, baita ekarpenaren interesari eta sormenari buruzko iritzia ere.

-Patenteen edo baliagarritasun-ereduen ustiapenari buruzko datuak.

-Aldizkari espezializatueta egindako aipamenak.

- Egindako zabaltzearen jardueren emaitzen ebidentziak (txostenak, zabalkunde argitalpenak, ezagutza publikoa, kontratuaren zenbatekoa, emandako obra/produktu edo zerbitzua, etb.).

Ekarpenak obra kolektibo baten emaitza badira, egileetako bakoitzak ikerketa edo zabaltzea hori bere curriculumean gaineratu ahal izango du, dagozkion laburpenetan esanbidez aipatuz lan kolektiboari egin dion ekarpen pertsonala.

Adierazitako ekarpena patente bat denean, haren egoerari buruzko txostena gaineratu beharko da.

Eskatzaile bakoitzak beste bi ordezkoko ekarpen aurkeztu ahal izango ditu, erreferentzia egoki eta ondo identifikatutakoak, hasieran aurkeztutako beste bi ordezkako ditzaketenak behar den gutxienezko puntuaziora heltzeko nahiko kalitatea ez badute.

## 5. Ebaluazio-irizpideak.

Ebaluazio-esparru bakoitzerako berriazko irizpideak ezartzen dituen Ikerkuntza-jardueraren Ebaluazio Batzorde Nazionalaren Batzordeburuaren ebazpenean irakasle funtzionarioei aplikatzen dakizkiekeen ebaluazio-irizpide berak izango dira aplikagarri eta Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren egoitza elektronikoa aurki daitekeena. Aipatutako ebazpenean 1994ko abenduaren 2ko Aginduaren 7. artikuluan eta Unibertsitate eta Ikerketako Estatu Idazkaritzaren 1994ko abenduaren 5eko Ebazpenaren 7. artikuluan ezarritako irizpide orokorrak ikusi daitezke.

## 6. Ebaluazio-prozedura.

6.1. Unibasqen Ebaluazio Batzordeek eskatzaileek aurkeztutako bost obretako bakoitzari buruzko iritzi teknikoa emango dute, obrak 1etik 10era puntuatuz Curriculum Vitae osoan definitutako testuinguruaren barruan, Aholku Batzordeak 2016ko urriaren 13an hartu zuen eta Unibasqeko zuzendariaren urriaren 19ko Ebazpenean argitaratu zen erabakian ezarritako irizpideen 5. puntuari jarraikiz.

6.2. Ebazpena aldekoa izango da hautatu eta ebaluatu diren bost ekarpenen batez besteko puntuazioa 6 edo handiagoa baldin bada. Ez bada puntuazio hori lortzen, ebazpena aurkakoa izango da.

6.3. Aurkako ebazpena arrazoitzeko, ekarpen bakoitzari buruzko iritzi teknikoa biltzen duten Ebaluazio Batzordeen txostenak aurkeztuko dira.

6.4 Unibasqek ebaluazio-txosten tekniko bat eta ebazpen bat emango du eskaera bakoitzeko, eta zerotik hamarrera bitarte puntuatuko du ebaluazioaren eraginpeko lana. Gainera, eskatzaileak errekurtsua jartzen badu deialdia egiten duen organoaren aurrean, Unibasqi helaraziko dio, hark haren inguruan ebazteko behar den txosten teknikoa egin dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko maiatzaren 14(a).

Eva Ferreira



Unibasqen zuzendaria